

Ibarrako Udalak atez ateko bilketaren aldeko konpromisoa hartu du

Hilaren 22an eta 23an batzar informatiboak egingo dituzte udaletxeko bilkura aretoan

Asier Imaz Ibarra

Ibarrako Udalak atez ateko hondakin bilketaren aldeko konpromisoa hartu du, eta hilaren 29an berretsi egingo du udaletxean egingo den bilkuran. Eredu aldaketa hori gauzatzeko, informazio kanpaina jarriko du abian udalak, eta hilaren 22an eta 23an, batzar informatiboak egingo ditu bilkura aretoan.

Bilduko udal ordezkariak erabakiaren berri iragan larunbatean eman zuten prentsaurrekoan, hainbat herritarren babesarekin. Bertan, udalak arduraz jokatu duela eta horrela jarraitu nahi duela azaldu zuten, «gaiari aurrez aurre heltzeko eta herritarren kezka argitzeko».

Hondakin gaitz herritarren artean kezka sortu duela onartu zuten Jesus Peñagarikano alkateak: «Jakin badakigu erabaki honek eta gaia kutsatzeko sortu dituzten informazio interesatuek kezka, urduritasuna eta zalantza sortu dutela jendartearen. Hau guztia oso normala eta ulerkorra da, eta orain gure zeregina da kezka eta zalantza horiek argitzea».



Udal ordezkariak, herritarrekin, prentsaurrekoa eskaini zuten. TXOLARRE IRRATIA

Udal ordezkarien esanetan, «gizarteak ulertu du hondakin arazo bat dugula, eta guk sortutako arazoa denez, konponbidea ematea gure esku dago. Horregatik, ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakin bilketaren alde egiteko konpromisoa hartu nahi dugu; sistema hori atez ateko bilketa da, %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra».

Edukiontzien sistemaren inguruan, datuen errealitatea jarri nahi izan zuten mahai gainean Ibarrako Udaleko kideak: «Urteak daramatzaguz edukiontzien sistemarekin, eta urratsak eman baditugu ere, sistema honek eman dituen emaitzak oso kaxkarrak dira. Gure birziklatze maila ez da %30era iristen, hondakin %90a birziklagarria denean. De-

nok birziklatzen dugula esaten dugu, baina datuak gordinak dira: hondakin %70 inguru zabortegira botatzen ari gara, urtero 180.000 euro inguru». Agerraldian gaineratu zuten, «gure axolagabekeriarengatik, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hau onartzina da!». Atez ateko sistemarekin alderatuta, egungo sistemarekin errefus kopurua hirukoiztu egiten dela esan zuten. «Kutsatzea ez da eskubidea eta sinestazten digun kontsumo eredu aldatu nahi dugu», adierazi zuten.

Herritarrei lasaitasun mezua ere bidali nahi izan zuten alkateak: «Herritar guztiei lasaitasuna eta ilusioa transmititu nahi diegu, eta duela urtebete gudan jarri zuten konfiantza mantentzen jarrai dezatela eskatu».

↓ Egitaraua

MAIATZAK 22, ASTEARTEA

■ **19:00etan.** Batzar informatiboa euskaraz udaletxeko bilkura aretoan.

MAIATZAK 23, ASTEAZKENA

■ **19:00etan.** Batzar informatiboa gazteleraz udaletxeko bilkura aretoan.

MAIATZAK 29, ASTEARTEA

■ Atez ateko bilketa bilkuran onartuko du udalak.

EKAINA

■ Usurbilera bisita gidatua. Egun zehazteko dago oraindik.

IRAILA

■ Parte hartze prozesuaren barruan, auzoz auzo bilerak egingo dituzte.



Larramendi Bizirik elkarte kideen prentsaurrekoa, larunbatean. R. CALVO

Larramendi Bizirik «beste auzo mota» baten alde azaldu da

Maiatzaren 30ean batzar informatiboa egingo dute lurperatzea gaitzat hartuta, Tolosako kultur etxean

R. Calvo-A. Imaz Tolosa

Tolosako Larramendi Bizirik elkarteak lurperatzearen aurkako jarrera azaldu zuen iragan larunbatean, beste behin ere. Lurperatzea ez egitearena, ordea, ez da beraien helburu bakarra, izan ere, «beste auzo mota» bat nahi dute, partaidetzan oinarrituko dena.

Elkartearen izenean Asier Izagirrek hitz egin zuen, eta bizilagunei eta tolosarrei lurperatzearen inguruko informazioa banatzeko diptiko bat, eta informazio orri bat prestatu dituztela azaldu zuten. «Lurperatzearen proiektuak berebiziko azpiegitura erraldoia aurreikusten du, 80 metro elkartzeko auzoa betirako zatituz.

Tolosako sarrera izatera konde-natuko gaitu, eta bizirik gabeko auzoa izatera behartu», esan zuten Larramendi Bizirik elkarte kideak.

Bide horretan, maiatzaren 30ean, batzar irekia egingo dute Tolosako kultur etxean. Bertara Larramendi auzoko bizilagunak, eta oro har, tolosar guztiak gonbidatu zituzten Larramendi Bizirik elkarte kideak. Ondoren, batzar horretan agertzen diren zalantza eta ideekin txosten bat egingo dute. Aurrera begirako asmoak ez dira bilkura horretan amaituko, «auzotarrak dinamizatze eta parte hartze bultzatze ekitaldi alternatibo bat» antolatze asmoa agertu baitzuten.

Azkenik, Asier Izagirrek esker oneko hitzak izan zituen elkarteari babesa eman dien guztientzat: «Aurrera jarraitzeko indarra eman diguzue, eta horrek auzo elkarte sendoa eta dinamiko bat sortzeko balio izan du».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baratze ludikoak.** Landu zure barazkiak. Dagoeneko prest dagoen lur sail bat eskaintzen dizugu zuk barazkiak lantzen goza dezazun. Hilean 35 euro edo gehiagoren truke, 50, 60 edo 120 metro karratuko lur saila aloka dezakezu Tolosaldean

hamar minutura. Zure baratze ekologikoa egiten aholkatu eta lagunduko dizugu, laborantza ekologikoaren aldeko apustua egiten baitugu. Animatu! Eskura duzu naturaz gozatzeko eta baratzean aritzeko aukera. Kontaktatu-telefonoa: 687 122658.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia ◊ Amasa-Villabona



CANOK JASO DU SARIA

Harkaitz Canok jaso du 2011ko Beterriko Liburua ohorezko literatur aipamena, *Twist* eleberriragatik. Amasako kultur etxean jaso zuen 111 Akademiak ematen duen saria. Ostegunean izan zen ekitaldia, eta Akademiako kideekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Amasa-Villabonako udal ordezkariak izan ziren. HITZA

Manu Azkarate ◊ Errepresaliatua

Espainiako epaitegien aginduz atxilotu zuten Manu Azkarate Lapurdin; gaur bere aurkako epaiketa hasiko da Paueko epaitegian.

«Frantsesek betikoa egingo dute: Espainiatik eskatzen dietena»

Asier Imaz

Paueko epaitegira joango da gaur 09:00etan Manu Azkarate (Tolosa, 1963). Frantziako polizia martxoaren 7an atxilotu zuen tolosarra Ziburun, ETAren lotura zuelakoan eta estradizio eskari baten harira. Espainiaratua izango den edo ez erabaki beharko dute orain Paueko epaitegian.

Gernikako akordioaren sinatzaileek deituta, Tolosan, elkarretaratzea egingo dute gaur 19:00etan, Trianguloan.

Nolakoa izango da epaiketa?

Espainiar gobernuak ni estraditatzeko eskatu zuen, eta hori aztertu da. Alde batetik, Espainiatik bidalitako txostenak egongo dira, eta bestetik, nire abokatuak eskariaren aurka aurkeztuko dituen argudio edo arrazoiak.

Erabakia egunean bertan hartuko al dute?

Denbora bat beharko dute horretarako, ez gehiegi, baina zerbaite bai.

Zeintzuk dira aukerak?

Normalena eskariari epaileak baiezkoa ematea izango litzateke, eta ondorioz, Espainiara eramango ninduketen. Beste aukera bat, errefuxiatzea izango litzateke, baina hau nahiko zaila da. Epaitegiak denbora gehiago eskatzeko aukera ere badago, informazio gehiago biltzeko eta abar.

Baikor egoteko motiborik ez al daukazu?

Frantsesek, baita Hollandekin ere, betikoa egingo dute: Espainiako agintariek eskatzen dietena. Hegoaldean egoera sozio politikoa nabarmen aldatu da, baina egia da, alde batetik urratsak eman baldin badira, bestetik ez dela mugimendu txikiena ere sumatu. Testuinguru horretan, ez

↓ Elkarretaratzea

MAIATZAK 15, GAUR

■ **19:00etan.** Gernikako akordioaren sinatzaileek deituta, Trianguloa plazan.

dago arrazoirik baikor egoteko.

Espainiaratzen baldin bazaituzte, inkomunikazio garairik egongo al zen?

Ez, ez dago Guardia Zibilaren eskuetan erortzeko arriskurik; zorronez. Hori frantsesek ondo zaintzen dute; badakite beste aldeko errealitatea zein den, tortura, inkomunikazioa eta abar... Frantsesek zera esaten dute: beste aldean nahi duzuen egin, baina hemen ez dugu onartzen eta ez dugu onartuko horrelako gertakariekin lotuta gure izena azaltzea, kolaboratzaile bezala.

Normalean hegazkinez Barajaseran eramaten zaituzte, eta bertatik Auzitegi Nazionalera. Epaileak bi gauza irakurtzen ditu, eta zuzenean espexera.

Zergatik Espainiaratu nahi zaituzte?
Kalean betetzen ari naizen kondanaren baldintzak hautsi izana leporatzen didate; egunero joan behar nuen Ertzaintzaren, Martutenera, eta hori haustea. Lege prozeduran ez dago ezer berririk. Orain, kondena amaitzeko falta zaidana betetzeko eskatzen dute. ETAko militantea eta abar esaten dute, baina ez dago lege prozedura berririk; 1983an epaitu eta zigortutakoarengatik ari dira. **Espetxetik osasun arazo kronikoen-gatik irten zinen.**

Hori da. Epailearen eta polizia kontrolpean ari nintzen kondena betetzen.

Martxoaren 7an atxilotu zintuzten. Nola gogoratzen duzu gertatua?

Etiketari atera eta mugimendu arraroak ikusi nituen egun horretan. Ondoren, auto bat gerturatu eta hiru pertsona jaitsi ziren, kaleko jantzi; berehala eraman ninduten, bortxarik gabe. Hemen atxilotetako horrela izaten dira, nahiko lasai. Argi nuen atxiloke-

ta denbora kontua izango zela, eta horrela izan zen.

Zuzenean eraman al zintuzten Paueira?

Hasieran Baionako polizia etxera eraman ninduten. Datu batzuk hartu, ni nintzela ziur egoteko galdera batzuk egin eta medikuarrekin eta abokatuarekin egoteko aukera izan nuen. Hemen polizia-erresketan eskuetan egoteak ez dauka beste aldekoarekin zerikusirik. Baionatik Paueko epaitegira eraman ninduten, horrelako gauzak bertan erabakitzen baitira. Pauen, fiskalak mediku txostena ikusi ondoren, prozedurak aurrera egiten zuten bitartean ni aske uztea eskatu zuen. Orain egoera horretan nago, astean birritan polizia etxera joan beharra daukat sinatzeraz.

Euskal Herrian egoera aldatu dela aipatu duzu lehen, baita urratsak alde bakarrekoak izan direla ere.

Ez da oso azkarra izan behar horrelako irakurketa bat egiteko, oso nabarmena baita. Egia da, prozesu hau aurrera eramatea erabaki zenean, berehala azpimarratu zela alde bakarreko prozesua izango zela. Aurreko negoziazio prozesuekin ez dauka zerikusirik oraingoak. Urratsak guk emango ditugu, guri komeni zaigun neurrian; ez gara besteek egiten dutenaren zain egongo. Horrek ez du esan nahi, prozesua ongi bukatzeko, besteek ezer egin behar ez dutenik, baina egia da oraingoan euren jarrerak ez gaituela horrenbeste baldintzatzen. **Prozesua kontuan hartuta, eta aurrera begira jarrita, buruketarik egiten al duzu?**

Noizean behin etsaiaren lekuan jartzen saiatzen naiz, eta oso zaila daukatela konturatzen naiz. Garaipen militarra lortuko zutela esanero zutenean, hemen estrategia



HITZA

aldaketa bat egon da. Ezker abertzalea inoiz baino ahulago zegoenean, aldatzeko gai izan da, eta gaur egun inoiz baino indartsuago eta inoiz baino perspektiba hobetoarekin dago. Zentzu horretan, istorioa ondo bideratuta dago. Espainiako gobernu urratsak ematen hasten baldin bada, gure jendeak garaipen bezala hartuko luke; badakite euren aurretik tsunami bat bezala pasa gaitzekela. Horren aurrean, intransigentsia itsura eman behar dute, Arnaldo Otegi azken gutunean esaten zuten bezala, sentsa-

ziofalsu hori zabaldu behar dute. Gero, ordea, Argentinatik edo Boliviatik iritsi zaiena ezer esateko aukerarik gabe irentsi behar izan dute.

Bestalde, urratsik eman gabe jarraitzen baldin badute, gertatzen ari zaiena gertatuko zaie, gero eta bakartiago geldituko dira. Jasangaitza da beraien diskurtsoa. Estrategia honekin, badakite bai ala bai garaipen politikoa gure eskuetan dagoela; bai behintzat gauzak ongi egiten baldin baditugu, hain zuzen ere, egiten ari garen moduan.

Irudia ◊ Tolosa



BATERAGUNE AUZIKO EPAIA SALATUZ

Bateragune auziaren epaiaren aurkako elkarretaratzea egin zuten ostiralean Trianguloan. Gernikako akordioaren sinatzaileek deituta elkartu ziren, *Prozesuaren aurkako epaiketarik ez, konponbide garaia da* lelopean. Espainiako Auzitegi Gorenak Otegi, Diez, Jacinto, Rodriguez eta Zaba-

letaren aurka ezarritako zigorra, Euskal Herrian zabaldutako bake eta normalizazio prozesuak jasandako lehenengo «erasoa» ez dela esan zuten, eta «estatuaren indarkeriaren aurrean bake eta normalizazio prozesuaren aldeko ahaleginak indarberritzeko deia» egin zuten. I. GARCIALANDA

Anoeta-Villabona



EKITALDI UGARI, GAZTETXEEN URTEURRENAK DIRELA ETA

Anoetako eta Villabonako gaztetxeek beren urteurrena ospatzeko ekitaldiak egin dituzte asteburu honetan. Anoetako gaztetxek X III. urteurrena dela eta, patata tortilla ehiaketarekin (lehen irudia) hasi zuten lanurabata, eta bazkaria egin ondoren, poteekieta izan zuten. Egunaz Luz de Putas eta Gabezinen kontzertuekin bukatu zuten. Villabonan ere, Onddo gazte asanbladako kideek deliruta, gaztebarearen urtebetetzea ospatzeko artu olin, eta bertso bazkaria egin zuten (bigarren irudia). Ekitaldi gehiago ere egingo dituzte, hala ere; lanurabat honetan mendit martxa egingo dute, bazkaria egingo dute ondoren, eta mus txapelketa ere izango dute. Hilaren 26rako Oñdorrock jaialdia antolatu dute Glaukoma Sound System, 3. gabe Z. Switch, Matera gris, Lusa, Flattened Frogs eta Massacre taldeekin. LAGUN, MA

Ibarra



SUBEGI EGUNA EGIN DUTE

Ibarra Subegi kultur elkartearen inguruan mugitzen diren hanbat taldek antolatuta, Subegi eguna egin zuten lanurabatean. Barbiaren kalejirak eman zion hasiera jai egunari, eta Ermetario Arrese parkean bazkaria egin zuten. Hau mentzak jolasak (lehen irudia) ere egin zituzten. Subegi elkartearen Egunko ekitaldi nagusiak gauetan izan ziren: Zeta Maya, Hesian (bigarren irudia), La Jodedera, Willis Drummond taldeen kontzertuak. LAGUN, MA

Hernialde



HERRITARREN PRODUKTUAK, PLAZARA

Hernialdeen egun berezia izan zuten herenegun; San Isidro eguna da gaur eta Asteasu, Abaltzisketa, Amezketaren protagonismoa eman auzoari. Igandean lehen aldiz, Nekazal, Abeltzain eta Artisautza Azoka egin zuten. Lehen aldiz honetan herritarren produktuekin bakarrik osatutako azoka antolatu dute, baina auzura begira, delatida zabalatzeko asmoa ere badute. Frontolan artisau eta nekazal produktuak ikusi eta erosi ahal izan ziren eta gaur egun erakusketako pilotalekuan atzealdian jarri zuten. LAGUN, MA

Alegia



PALESTINARI KEINUA

Askapenak antolatuta Euskal Herria-Palestina Elkartzasun Eguna izan dute, asteburuan, alegiarekin. Palestinan simbolo den oilbonda eskualdera ekarri nahi izan zuten, eta oilbondaak landatu zituzten, bategatik, eta bazkari legasa ere izan zuten, bestetik. Tartean harriera ekitaldia ere egin zuten. Eguna dantzekin amaitu zuten (irudia). LAGUN, MA

Tolosa



OLATUAK TOLOSAN ERE EGIN DU TALKA

Olatu Talkaren ekitaldiak Gipuzkoa osan barreiatu dira asteburu honetan. Tolosaldean Tolosan egin du olatuak talka, eta hanbat ekitaldi izan ziren. Bategatik, Sukal Talka izeneko bazkari berezia egin zuten hanbat herritarrek Trianguloan eta Plaza Zaharran (lehen irudia) eta, bestetik, Box A elkarteak baratz mugikorak jarri zituzten kalean (bigarren irudia). Gauditzen goren elkarteak Julian Rodriguezek ere bakarriketa eskarri zuten bazkaltzarrekin. LAGUN, MA

San Isidro jaiak ospatzeko ekitaldiak, Tolosaldean

Alkizan asteburuan izan dute jaiak; gaur Asteasu, Abaltzisketa, Amezketaren eta Gazteluren txanda da eguna behar bezala ospatzeko. Herri gehienez bazkaria egingo dute, baina musika eta jaiak ere ez dira faltako. Alkizan, ordea, asteburuan izan dute festa; lanurabatean mendit ibilaldia egin zuten, lehenik, eta gaztetxoan artoke gurpil lasterketa, ondoren. Herenegun V. Fronteian Txapelketa finalak ikusleak auzura izan zuten.

Rebeka Calvo Alkiza
 San Isidro eguna da gaur eta Asteasu, Abaltzisketa, Amezketaren eta Gazteluren txanda da eguna behar bezala ospatzeko. Herri gehienez bazkaria egingo dute, baina musika eta jaiak ere ez dira faltako. Alkizan, ordea, asteburuan izan dute festa; lanurabatean mendit ibilaldia egin zuten, lehenik, eta gaztetxoan artoke gurpil lasterketa, ondoren. Herenegun V. Fronteian Txapelketa finalak ikusleak auzura izan zuten.



Gurpil lasterketa egin zuten herriko gazteek, Alkizan. LAGUN, MA

GAUR, MAIATZAK 15

- **Asteasu**, 11:30ean meza; 13:00etan erakustaldia proiektuak: Jove Barriaren idiparra Andoni Mendizabalaren zaldaren aurka, 20 minutuko sailotan; 14:00 bazkaria, Sarriola sagardotegian.
- **Abaltzisketa**, 12:30ean meza eta 13:30ean, bazkaria Ostatuan.
- **Amezketaren** Udalak hamaiketako eskalario die herriko erretorikoei Zazpitiuri elkartzain.
- **Berastegi**, 12:45ean prozesioa udalbatetik San Martin elizara doztuarien laguntzaz; 13:00etan meza; 14:00etan bazkaria Kakonere eta ondoren, triki doinuak.
- **Gaztelu**, Merienda egingo dute Erroize Apkiko kirol eta kultur elkarteak.

Osasuna sustatzeko jardunaldiak

Informazio gehiago: www.berriak.com

Adretoa eta herri ezberdinetan: Tolosa, 03. 01.00.000

Villabona



INDARKERIAREN AURKA

Villabonako Udaleko arderdi politikoko guztietako ordezkariak, eta, oro har, herritarrek, elkarretaratzera egin zuten lanurabatean pasa den astean herriko zandako lapurretari bati eta makumeen kontrako bilerako salatzeko, «Indarkeria mota guztien kontra gaudu», adierazi zuten bertan bildutakoek. LAGUN, MA

Aurten noraino?

Agintzeren 11% gutxitzea

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

LEHEN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA

Olaizola-Lasa	22-9
Barriola-Irujo-	17-22
Olaetxea-Retegí Bi	22-8

BIGARREN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA

Zabala-Jaunarena	16-22
------------------	-------

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

29. jardunaldia

Ceramicas Nogales-Ibarra	1-3
Inter Eder-Egintza T. Lakunza	4-5

Sailkapena

1. Ibarra	72p
2. Sestao	71p
3. Aurrera Vitoria	62p
7. Egintza T. Lakunza	40p

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

32. jardunaldia

Arrasate-Tolosa CF	0-4
--------------------	-----

Sailkapena

1. Anaitasuna	67p
2. Tolosa	61p
3. Pasaia	59p

ERREGIONAL PREFERENTEA

30. jardunaldia

Lehen taldea

Martutene-Tolosa B-	1-1
---------------------	-----

Sailkapena

1. Touring	73p
2. Ostadar	72p
3. Tolosa B	53p

Bigarren taldea

Intxurre-Mutriku

	2-3
--	-----

Sailkapena

1. Lagun Onak	55p
2. Zumaia	51p
3. Anaitasuna	49p
16. Intxurre	13p

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

Askartza	76
Bidebide Ibiza	87

Sailkapena

1. Santurtzi	13-4
2. Leioak Zarautz	12-5
3. Bidebide Ibiza	11-6

Olaizolak eta Jaunarenak egin dute aurrera banakako txapelketan

Barriolak ezin izan du Irujo menperatu 14 eta 7 aurretik joan arren, eta Olaetxeak galdu egin du Retegiren aurka



Olaetxea Beotibarren atzo jokaturako partidaren une batean. I.T.

Iñigo Terradillos

Ez Barriolak ez eta Olaetxeak ere ezin izan dute final laurdenetarako txartela lortu. Beraz, Bengoetxea, Olaizola eta Jaunarena dira banakako txapelketan lehiatzeko geratzen diren eskualdeko pilotari bakarrak.

Atzo jokatu zuen Olaetxea Iizartzarrak Retegí Biren aurka Tolosako Beotibar pilotalekuan. Lehen tantoa berak egin zuen arren, hori izan zen aurretik joan zen une bakarra. Retegí nagusitasunez gailendu zitzaion, 22 eta 8ko emaitzarekin.

Asteburuko partidarik esanguratsuenaren herenegun Irujo eta Ba-

rriola aurrez aurre jarri zituen izan zen. Leitzarra 14 eta 7 irabazten joan bazen ere, Iberokoa izan zen garaile. Sakez lorturiko zortzi tantori esker eman ahal izan zion buelta markagailuari Irujok. Barriola ausart irten zen kantxara, indartsu, eta ondorioz partidaren hasiera berea izan zen. Hala, zaz-

pi tantoko aldea atera zion leitzarrrak, baina Irujok orduan erakutsi zuen bere indarra, eta 14 tanto jarraian eginez irabazi zuen partida. 17 eta 22ko markagailuarekin, Barriola banakako txapelketatik at geratu da, beraz.

Denbora luzez jokatu gabe egon ostean, Leitzan bizi den

Olaizolak Lasa mendean hartu zuen ostiralean. Olaizola ondo aritu zen, eta erraztasunez garaitu zuen Aritz Lasa, hein handi batean, azken honek ia trararik ez ziolako egin. 22-9ko emaitzarekin amaitu zen partida, eta ondorioz, Olaizolak final laurdenetan Idoateren aurka jokatzeko txartela lortu du.

Bengoetxea leitzarrrak final laurdenetan ekingo dio txapelketari, eta asteburu honetan argitu da noren aurka egingo duen. Hain zuzen ere, Gonzalez izango du aurkari. Larunbatean Merino eta Gonzalezen arteko partida izan zen, eta azken honen aldeko emaitzarekin amaitu zen, 22-14, hain zuzen.

Jaunarena ere aurrera

Bigarren Mailan, bestalde, Jaunarena eta Zabalaren arteko partida izan zen larunbatean, eta leitzarrrak lortu zuen finalerdietarako txartela 22-16 irabazita.

Irudia ▾ Villabona



TXIRRINDU PROBA POLITA

Iker Usabiaga Otaegiren oroimenezko Villabonako seigarren Martxa Zikloturista egin zuten herenegun, Irrintzi elkarteak antolatuta. 460 parte hartzaile izan zituen probak. Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira probak izan duen harrerarekin, eta eskerrak eman dizkie proba egiten lagundu duten guztiei. ERIKA SARASOLA

Irudia ▾ Larraul



IBILIAN, ERNIO INGURUAN

Bi urtez behin egiten den Erniopeko mendi ibilaldia izan zen herenegun. Erniozaleak antolatzen duen proban ehunka lagunek hartu zuten parte, eguraldi onak lagundurik. Larrauldik irten eta bertara iritsiz, 11 orduko ibilbide luzea (48 km) eta 6 orduko motza (29km) izan zituzten aukeran mendizaleek. ERIKA SARASOLA

🎯 **Hilberriak eta urteurrenak**

KORO ZABALA BONGOETXEA

Agur Koro besarkada handi bat.

ZURE LAGUNAK:
Pepi, Joxepi, Bakartxo, Carmen, Lurdes.

Amezketan, 2012ko maiatzaren 15ean

KORO ZABALA BONGOETXEA

HAINBESTE URTE BORROKAN ETA AZKENEAN UDABERRIAK ERAMAN ZAITU, BAINA BETIRAKO IZANGO ZARA ERREMENTAINGO LORERIK EDERRENA.

Haizea, Ekhi, Ur, Sua, Uxue eta Iker, Harri, Oier eta Amaia, Nahike, Amets.

Amezketan, 2012ko maiatzaren 15ean

KORO ZABALA BONGOETXEA

- Goian bego - Zetazko oskol leuna banatu diguzu inguruan, tximeletaren hegaldi goxoa abiatu baita zeruan

Ikas dezagun, Koro; gertu, apal, oro.

Zumadi eskolako ikasle, guraso eta lankideak.

Amezketan, 2012ko maiatzaren 15ean

Transvulcania proban Iker Karrerak bosgarren postua lortu du

E. Maiz Amezketan

Larunbatean izan zen Transvulcania proba La Palman, eta Iker Karrera bosgarren postuan sartu zen, 7 ordu 38 minutu eta 59 segundoko denbora eginez. Dakota Jones izan zen irabazlea 6:58:44ko denbora eginez, eta atzetik Andy Symonds sailkatu zen 7:00:35an. Kilian Jornet izan zen hirugarrena, 7:09:54an iritsiz.

Otañok eta Saralegik aurrera jarraitzeko txartelak lortu dituzte

Asteasun jokaturako kanporaketan bigarren postua lortu du Otañok; Saralegik Urduñan eskuratu zuen txartela

Erredakzioa Asteasu

Unai Otañok Asteasun jokatu zen Urrezko Aizkorako kanporaketan finalerdietarako txartela eskuratu zuen, igandean. Aitzol Atutxak lortu zuen garaipena, eta bigarren postua izan zen ibar-



Otaño finalerdietan irabazten du Asteasun bigarren postua egin da. HITZA

tarrantzat. 16 minutu eta 47 segundo behar izan zituen lan guztiak bukatzeko. Hirugarren postuan, eta honenbestez txapelketatik kanpora, geratu zen Joxe Mari Olasagasti. Finalerdiak erabakita daude. Alde batetik, Aitzol Atutxa eta Iñaki Azurmendi eta bestetik, Mugertza II.a eta Unai Otaño izango dira. Hilaren 27an, Lagranen (Araban) neurtuko dituzte indarrak.

Urduñan jokatu zen 23 urtez azpikoan txapelketako final laurdenetako kanporaketa, eta bigarren sailkatu zenez, Eneko Saralegi leitzarra hurrengo kanporaketan izango da. Arkaitz Olano zen jokatzeokoa, baina lesio bat tarteko ez zegoen guztiz errekuperatuta, eta azken momentuan, Saralegi herritarrak ordezkatu zuen.



Liga Nazionalen aritu ziren pultsulariak eta entrenatzaileak. HITZA

Klubun Arteko Ligan etxekoak nagusi

II. Klubun Arteko Liga izan zen Zizurkil; Igor Sasiainek, 69 kiloko mailan, marka ezarri du

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Intxaur Pilotalekuan II. Klubun Arteko Liga Nazionala jokatu zen. Halterofiliako hiru talde aritu ziren, eta garaipena etxekoek lortu zuten. Lehena, Danok Danena izan zen, 394,66 pun-

turekin. Taldean, Ekaitz Kortajarena, Jon Sasiain, Igor Sasiain, Francisco Gonzalez, Teddy Martinez eta Jon Ander Iriarte aritu ziren. Bigarren postua Urbi talde bizkaitarrak lortu zuen 353,90 punturekin, eta hirugarrena Zarautz izan zen, 290,80 punturekin.

1980ko marka hautsi zuen

Igor Sasiainek, Danok Danena taldekoak, 1980etik arrankada modalitatean Gipuzkoan ezarrita zegoen marka hautsi zuen. 69 kiloko mailan, 116 kilo altxatu zituen Sasiainek.

Tolosako XI. Herri Duatloian 117 lagunek parte hartu dute

Idoia Labaien eta Iker Manso izan dira lehenak helmugan; «oso ondo atera da guztia», antolatzaileen esanetan

Eneritz Maiz

Tolosako XI. Herri Duatloia izan zen, larunbatean. Javier Urkolaren omenez antolatzen du Tolosaldeko Triatloi Taldeak lasterketa, eta antolatzaileen esanetan, «oso ondo atera zen dena». Guztira 117 partaide izan ziren: proba nagusian 66 lagun eta Duatloi Txikian (10 urtez behera) 51 haurrek hartu zuten parte. «Plaza Berrian eta Unanue taldeka Zaharren giro aparta» izan zen.

Nesketan, Idoia Labaien izan zen lehena eta mutiletan, Iker Manso. Bikoteka, Eva Pelaez eta Josean Alberdi izan ziren lehenak. Artetxe, Alzate, Barriola, Goitia eta Unanue taldeka aritu ziren, eta aipamen berezia jaso zuten Urkola-Etxetxipia eta Mujika-Dumall familian parte hartu zutenek.

↓ Sailkapena

NESKAK

1. Idoia Labaien (Tolosa)
2. Mariakarmen Dorronsoro (Albiztur)
3. Itziar Lekuona (Zizurkil)

MUTILAK

1. Iker Manso (Tolosa)
2. Endika Erregerena (Donostia)
3. Juanmari Juez (Zumaia)

BIKOTEKA

1. Eva Pelaez eta Josean Alberdi (Andoain/Zizurkil)

2. Estitxu Kortajarena eta Oier Aranzabal (Tolosa)
3. Nagore Salaberria eta Kike Zinkunegi (Iruara)

TALDEAK

1. Aritz Artetxe, Andoni Alzate, Koldo Barriola, Ion Goitia eta Xabi Unanue (Tolosa)

AIPAMEN BEREZIA

Urkola-Etxetxipia (Tolosa) eta Mujika-Dumall (Asteasu) familak

◉ Hilberriak eta urteurrenak



RAFAEL MUNOA ROIZ
DONOSTIAKO HIRI MEREZIMENDUAREN DOMINA

2012ko maiatzaren 10ean hil zen
- Goian bego -

Donostiako alkateak eta zinegotziek

DONOSTIAN, 2012ko maiatzaren 15ean



KOTE OLAIZOLA SAÑUDO

(Udaleko langilea) (Trabajador del ayuntamiento)
Maiatzaren 12 an hil zen Falleció el 12 de mayo

- Goian bego - - RIP -

Donostiako Udaleko alkatea, zinegotziak eta langileak **El Alcalde, la Corporación y los empleados del Ayuntamiento de San Sebastián**

DONOSTIAN, 2012ko maiatzaren 15ean SAN SEBASTIÁN, 15 de mayo de 2012



IGNACIO AZPILLAGA IZETA

- Goian bego -
Er agurrik,
gure bizitzan zurede betirako.
Maite zaitzugu

Seme-alabak eta bilobak

GALUR izango da hileta etizkizuna, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Azpetiko Scaresuko Sebastian Deunaren paroki-etxean. Aldez aurretik, mila esker.

AZPETIA, 2012ko maiatzaren 15a

Helbidea: Arta 64.
Oharra: HIBELA APETRID CARMONA BELATOKIAN dago.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Leitza.** *Nora goaz?* Leitzañ euskara sustatzeko lanaren hirugarren bilera egingo dute, 18:00etan, Aurrera Elkartearen.
- **Ibarra.** Jailetako egitaraua lantzen hasteko, 19:00etan udalategiko batzar aretoan *Egitara*ua lantaldearen bilera egingo da. Bertaratzeko deialdia egiten zaie herriko elkartei eta lantaldean parte hartu nahi duen herritar orori.
- **Tolosa.** *Posible al da Zero Zabor atez atekorik gabe?* hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean, Tolosa Zero Zabor taldeak antolatuta.
- **Tolosa.** Gernikako Akordioaren sinatzaileek elkarretaratzea deitu dute, 19:00etan, Trianguloa plazan, Manu Azkarate tolosarraren aurka Paun egingo den epaiketa dela-eta.
- **Anoeta.** Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztailearen 13ra. Izena udaletxean edo liburategian eman behar da eta maiatzak 25 da azken eguna.
- **Tolosa.** Txapin Festa datorren larunbaterako, hilak 19, antolatu dute gazte kuadrilek. Besteak beste, 14:00etan herri bazkaria egingo dute Plaza Berrian. Txartelak salgai daude Raku, Kikara eta Denak tabernetan, 12 euroren truke.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz Lete, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Bideberriko langileek euren egoera salatu dute elkarretaratzea eginez

Bideberriren kudeaketa «eskasa» eta foru aldundiaren «kontrol eza» jo dituzte langileek egoeraren arrazoitzat

Imanol Garcia Landa Tolosa

Bideberri enpresako langileek euren egoera salatu dute Tolosako Trianguloa plazan egindako elkarretaratzean. 54 langilek «egoera larri eta jasangaitza» bizitzen ari direla esan dute, «Bideberri elkarteak egin duen kudeaketa eskasagatik eta foru aldundiaren kontrol eza dela eta». Egun opor mugagabeak hartzea behartuta daudela esan dute, eta «inongo ardurarik» ez duten egoera batean «bahiuta» daudela esan dute. Langileen batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiari exijitu dio egoera «birbideratu» dezala eta Bideberriko «dangileen lan esku-bideak bermatu» ditzala.



Bideberri enpresako langileek elkarretaratzea egin dute Tolosako Trianguloa plazan. I.G.L.

Egoera horrek 30 bat adin txiki-kori eragiten diela salatu dute ere langileek: «Adin txikikoak lau eguneko epean birbanatuak izan

dira irizpide ekonomizistak jarraituz eta haien behar hezitzaileak alde batera utzita». Bideberri etxebizitza bat zuen Tolosan eta

bertain sei adin txikikorentzat lekua zuten, horietatik hiru etorkinentzat eta beste hiruak bertakorentzat.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



Zorionak!
Lexuri Aizpurua (Asteasu). Zure zazpigarren urtebetetzean, zorionak eta muxu handi bat etxekeoen partetik.



Urte askoan!
Onea Artola Zabala (Alegia). Gaur 9 urte. Zorionak eta muxuak etxekeoz guztien partetik.



HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

**FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA**